

IDEIA ETA BALIO PROPOSAMENA

Supermerkatuetan eta janari komertzioetan soberan duten janaria batzen duen eta txakurrentzako BARF dieta prestatzen eta sakabanatzen duen enpresa bat eratzea bururatu zaigu.

Ideia hau garatzeko prozesuan gizartean dauden arazo nagusiak aztertzen ibili gara eta horri esker konturatu ginen daukagun arazo larrietako bat **ingurumenaren** kontzientziazio falta dela. Hori dela eta, supermerkatuek duten **inpaktuan** bereziki zentratzea erabaki dugu. Izan ere, askotan entzun eta ikasi dugu supermerkatuetan erosten ez diren produktuak edota bidean apurtzen edo hondatzen direnak ez direla ezertarako erabiltzen eta **zabor** moduan amaitzen dutela. **Baliabideen** sekulako **galera** suposatzen du horrek, supermerkatuek **dirua galtzeaz** aparte.

Bestalde, jakina da lehen munduko “arazoa” dela, eta asko kontrastatzen duela hirugarren munduko egoerarekin: **pobrezia** oso handia denez **janari** eta **ur eskasia** izugarria da. Horregatik guztion baliabide den janariaren **xauketarekin** behingoz **bukatzeko**, probetxurik gabe



dauden elikagai horiekin, hala nola, fruta, egosi gabeko barazkiak, arrautzak, hezurak, erraiak eta haragi giharra **txakurrentzako**



pentsu normala baino osasungarriagoa eta elikagarriagoa den BARF dieta egiteaz arduratzen den enpresa ekologista sortuko dugu, Baurf izena duena. Izen hori dieta motaren izenetik eta txakurren zaunkaren onomatopeiatik eratorri dugu, talde guztiaren artean gure produktua irudikatzean otu zaizkigun hitzak lotu eta aukera egokiena hautatu ondoren.

Ba ahal dakizue nondik sortu zen gure ideia?

Startinnovarako taldeak egin genituenean, elkarren artean ezagutzen hasi ginen. Orduan konturatu ginen komunean genuena, **denek txakurrak genituela** zela. Horregatik, txakurren inguruko proiektu bat egitea erabaki genuen. Taldekide batek kontatu zigun, bere txakur bat dieta eta **nutrizio txarragatik hil zela**. Horrez gain, **ingurunearen egoera kezkagarria** dela eta, zerbait egin nahi genuen horrekin erlazionatuta. Horregatik, pentsu bat aldi berean osasuntsua eta ekologikoa dena egitea erabaki genuen. **Baliabide ekologikoak erabiliz, momentuan egindako produktua eskainiko dugu, txakurren osasuna eta bezeroen gogobetetasuna lehenetsiz.**



Gure **balizko aurkarietatik bereizteko**, **gure enpresak** hainbat **onura** eskaintzen ditu, bai **bezeroarengan**, bai bere **maskotan**; horrez gain, gure inguruko **enpresei** bide berriak irekitzen dizkiogu eta bizi garen

planetaren ingurumena zaintzeko konpromisoa hartu dugunez, gure **bizitza** eta **kontsumoa jasangarriagoa** bilakatzea lortuko dugu.

Bezeroari gehiago erakarriko dioten eskaintzen artean produktuaren **diseinua**, janariaren **kalitatea** eta haiekiko **gertutasuna** izango da. Jasotzen ditugun produktuen egoera ona dela bermatuko dugu, produktuaren kalitatea hobereena dela ziurtatuz. Produkzio eta ekoizpen **prozesu** osoan produktua **ahalik eta gutxien eraldatuko** dugu; izan ere, aprobe txatu ezin den edo hondatuta dagoen guztia kendu ondoren, erabat **garbitutako** eta **ontziratutako** janaria **izozten** dugu, **bakterio eta kutsadura gurutzatuak saihesteko**. Produktua eraldatu eta dieta prestatu ondoren, guk **diseinatutako paketeetan ontziratuko** dugu dieta, bezeroari saltzeko. Gure diseinua janaria izan ahal duen **itxura txarra** albo batera ustea lortuko du, bezeroak **gustora** erosteko produktua.

Horrez gain, **maskotentzako** gure dietak duten onurak amaigabeak dira. Pentso artifizialek eragiten duten **gaixotasunak** sahiesteaz gain, txakurren **inmunitatea**, **hazkuntza** eta **osasun mentala** erabat hobetzen da dieta naturala jatean (honi buruzko zehaztasunak gure blogean azaltzen ditugu).

Supermerkatuei gurekin elkarte harremana izatea onurak ekarriko dizkie baita ere. Alde batetik, guk saborrara botatzear dagoen janaria erostean, haiek, janari hori eskuratzeko ordaindutako **dirua berreskuratuko** dute. Ekologismoa gaur egun hartu duen garrantzia dela eta, gurekin lan egiten duten elkarteak **irudi hobea** islatuko dute eta jende gehiago erakarriko dute.

Produktua ekoizteko prozesuaren bilakaera osoan bermatzen dugu **aztarna ekologiko** txikiena sortzea eta horrela, **ingurumenean** ekarpen onak egingo ditugu baita ere.

Diseinua:

